
**GASTEIZKO UDALAK EROSKETA ETA
KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO
ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA
EGITEKO PLANA. 2017**

UDAL GAIAK BILDUMA



**GASTEIZKO UDALAK EROSKETA
ETA KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO
ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA
EGITEKO PLANA**

Vitoria-Gasteiz, 2017

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Maketazioa: Komunikazio eta Protokolo Bulegoa

Inprimatzailea:

L. G.:

EROSKETA ETA KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO PLANA: GASTEIZKO UDALAREN EKIP, 2017

Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibideak —Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 16an onetsia— hau ezartzen du 2.3 atalean:

Tokiko Gobernu Batzarrak Erosketa eta Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra Egiteko Plan bat (EKIP) onartuko du urtero sail guztientzat. Plan hori, halaber, erreferentzia izan daiteke erakunde autonomoentzat eta udal-sozietateentzat. Plana dokumentu argia eta zehatza izango da, erosketa eta kontratazioari lotutako premia espezifiko eta praktikoetara egokituta egongo da beti, eskuragarri egongo da prozesuan parte hartzen duten langile guztientzat, eta gizarteari jakinaraziko zaio.

EKIPak udal-kontratazioan gizarteratzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, Bidezko Merkataritza eta ingurumenarekiko errespetua bultzatuko duten jardunbideak ezartzeko eginkizuna izango du.

Kontsiderazio sozialei eta ingurumen-kontsiderazioei dagokienez, honako betebeharrak izango ditu EKIPak:

- A. Udal-administrazioak politika sozialen helburuekin hartu beharreko konpromiso politikoa ezartzea, erosketa eta kontrataziorako udal-politikaren adierazpen baten bidez. Funtsak honako hauek izango dira: pobrezari eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2012ko inkesta, 2012-2016 aldiko Gizarteratzeko III. Euskal Plana, EAEko memoria sozioekonomikoa, 2014ko lehen hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) eta horiek ordeztzen dituzten dokumentuak.
- B. Udal-administrazioak iraunkortasun-helburuekin hartu beharreko konpromiso politikoa ezartzea, adierazitako erosketa eta kontrataziorako udal-politikaren adierazpenaren bitartez baliabide naturalen zentzuzko kudeaketan eta aprobetxamenduan laguntzea, eta, ildo horretan, udal-kontratazio publikoa honako helburu hauekin aktiboki erabiltzea:

Ingurumena errespetatuko duten jardunbideak ezartzea.

Tokiko Agenda 21eko tokiko ekintza-planean eta beste plan sektorial batzuetan (ingurumen-arlokoetan eta sozioekonomikoetan) jasotako ekintzak egitea.

- C. Gaur egungo kontratazio-jardunbideak ezarri, diagnostikatu eta berrikuste, oinarritzko ildoa izango den erreferentziako inbentario bat egitea, eta, hortik abiatuta, erosteko eta kontratatzeke norabideak ezartzea eta aurrerapena neurtu ahal izatea.
- D. Garapen iraunkorra eta ingurumen-iraunkortasuna, iraunkortasun ekonomikoa eta iraunkortasun soziala sustatzeko lehentasun sozialak, ingurumen-lehentasunak eta erosteko eta kontratatzeke irizpide orokorrak finkatzea.
- E. Erosketa eta kontratazio iraunkorra babesteko antolamendua finkatzea eta erantzukizunak eta epeak esleitzea.
- F. Eskuratu edo kontratatuko diren produktu, zerbitzu eta obra jakin batzuekin lortu beharreko helburu kualitatibo eta kuantitatiboak eta epe laburreko jomugak ezartzea. Behar diren adierazleak ezartzea.
- G. Jarraibide teknikoak betez, udal-kontratazioaren faseetan ingurumen-klausulak, sozialak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arlokoak eta abar pixkanaka txertatzeko aukera bultzatuko duten norabideak eta prozedurak (ereduzko klausulak, neurriak eta abar) ezartzea.
- H. Planifikatutako denbora-esparruan helburuak eta jomugak lortzeko baliabide ekonomiko gehigarriak finkatzea.
- I. Gizartearekiko komunikazio- eta informazio-estrategia bat lantzea, erosketa eta kontratazio iraunkorrerako politika baten garrantzia eta arrazoiak helarazteko.
- J. Hornigaien fabrikatzaile eta agenteak eskaintzen diren produktu, zerbitzu eta obren iraunkortasunean motibatzeke beharrezkoak diren seinaleak merkatura helaraztea. Merkatuarekiko elkarrizketa eta kontsulta irekia antolatzea. Hornitzaileen parte-hartzea sustatzea.
- K. Prestakuntza eta sentsibilizazio barne-programa bat ezartzea: barne-komunikaziorako bitartekoak esleitzea —ikastaroak, mintegiak, intranet eta abar—, bai eta kontratatu eta erosteko erabaketan zeresanik duten zuzendaritza-langile eta teknikarien prestakuntza eta sentsibilizaziorako bitartekoak ere.
- L. Aurrerapen-adierazleen neurriaren eta helburu eta jomugen aldizkako eguneratzearen bidez emaitzen jarraipena egiteke kontrol-prozedura bat diseinatzea.

AURKIBIDEA

1. Konpromiso politikoa	9
2. Udalaren kontratazioaren eta erosketen diagnostika	11
3. Urteko plana (2017)	12
4. Komunikazio estrategia / prestakuntza	16
4.1. Gizarteari begira: herritarrak	16
4.2. Merkatuari begira: gizarte-eragileak	16
4.3. 16	
4.4. 17	
4.5. 17	
5. Jarraipena / Ebaluazioa	18
6. Eranskinak	20
6.1. Kontratazio gizartearekiko arduratsu eta iraunkorraren (KGA)	
alorreko aurrekariak, legedia eta politikak	20
6.2. Udalaren erreferentziazko proiektu estrategikoak eta planak	23
6.3. OHE-kontratu kudeatzailearen erregistroa	24
6.4. Udal kontratuen katalogoa.....	25

1. UDAL-ADMINISTRAZIOAREN KONPROMISO POLITIKOA EROSKETA ETA KONTRATAZIORAKO UDAL POLITIKA SOZIALEKIN, UDAL POLITIKAREN ADIERAZPEN BATEN BIDEZ

Gasteizko 2015-2019rako gobernu plan estrategikoaren barruan hiru erronka nagusi jasotzen dira:

- Bizikidetzaren sendotzea eta bizi-kalitatea hobetzea.
- Krisi ekonomikoa gainditzea eta kalitateko enplegua sortzea.
- Hiria eraldatu eta modernizatzea.

Hiru erronka horiei aurre egiteko zazpi ildo estrategikori jarraituko zaie:

1. Gizarte kohesioaren eta giza garapenaren hiria: udal politikek pertsona orori bizi-kalitate duina bermatzera bideratuta egon behar dute eta, gainera, gizarte babese-rako udal sistemen iraunkortasuna ziurtatu.
2. Enpleguaren eta ekonomiaren hiria: industriak, zientziaren eta teknologiaren laguntzarekin, zeregin estrategikoa izan behar du krisi ekonomikoen ondoren sortzen den eredu ekonomiko eta sozial berrian, eta hiria ekonomia-sustapen iraunkorra eta kalitateko enplegua sortzeko aukera bihurtu.
3. Birgaitzearen eta auzoen arteko orekaren hiria: birgaitzea, hiri biziberritzea eta ekonomia berpiztea.
4. Hiria adimenduna eta berdea: teknologia berrien erabileran oinarritua, bizi-kalitatea hobetzeko, lan egiteko aukerak areagotzeko eta herritarrek ingurumenarekiko errespetuarekin gehiago inplikatzeko.
5. Hiri garden eta parte-hartzailea: herritarren partaidetza ezinbesteko baldintza da hiri benetan iraunkorra lortzeko, informazioan, eztabaidan, benetan parte hartzeko kanaletan eta kudeaketa politikoaren kontrol publikoan oinarritua.
6. Hiri hezitzaile, kultural, sortzaile eta euskalduna: kultura, sorkuntza eta identitate errealtateak gako dira hiriaren eraldatze berrian, balioen eredu partekatu bati jarraituz.
7. Mugikortasun iraunkor eta osasungarriaren hiria: garraioaren eta mugikortasunaren kudeaketak ahalik eta gehien zaindu behar ditu biztanleen osasuna eta ingurune naturala, hiri-eremuan txertatuago egon dadin, eta ikuspegi ekonomikotik eraginkorragoa izan dadin.

Gainera, 2015eko urriaren 1eko udal politikaren inguruko eztabaida orokorrean, alkateak hau azpimarratu zuen bigarren erronkaz (“Krisi ekonomikoa gainditzea eta kalitateko enplegua sortzea”) hitz egitean:

“1.- Guztien ongiaren ekonomia sustatzea. Gobernu honentzat lehentasunezkoa da Udalaren kontratazio publikoan guztien ongiaren politikak sustatzea enpleguaren eta gizarteratzearen alorrean, ingurumenean, genero-berdintasunean eta garapenerako lankidetzan. Horretarako lan-talde bat osatu da, zeina agiri bat azkentzen ari baita, eta agiri hori Udalaren zein erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kontratazioan politika sozial, politika etiko edo ingurumen-politikako helburuak lortzera bideratutako klausulak sartzeko oinarri izango da, Ogasun Batzordeak onetsi ondoren”.

2. UDALAREN KONTRATAZIOAREN ETA EROSKETEN DIAGNOSIA

- OHE kontratu kudeatzailearen erregistroa eta kontratazioaren jarraipena egiteko berariaz sortutako euskarri informatikoa (3. eranskina) baliatuz.
- Sail bakoitzaren kontratuen katalogoan oinarrituz, kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorrerako klausulak zein eremutan sar daitezkeen agerrarazita (4. eranskina).

Horiek izango dira funtsezko bi iturriak erosketa eta kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorrari buruzko diagnostiko eguneratua lantzeko.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da udaleko sail guztien laguntza, bai OHE erregistroan bai aipatutako kontratuen katalogoan edo antzekoetan informazioa emanaz.

3.- KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO PLANA / 2017

LEHENTASUNAK	HELMUGAK / HELBURUAK	ADIERAZLEAK	2017KO EKINTZAK	JARRAIBIDEAK / PROZEDURAK / PRESTAKUNTZA	BALIABIDE EKONOMIKOAK
Enpleguaren bidezko gizarteratzea					
Lehentasunezko kolektiboak laneratzea sustatzeko klausulak sartzea kontrataziorako baldintza-agiri guztietan. (kontratuaren xedearekin zerikusi handiagoa duen kolektibo bat berezita sartuta).	Lehentasunezko kolektiboen kontratazioak % 2 handitzea.	Baldintza-agirietan lehentasunezko kolektiboak sartzea kontuan hartu dituzten kontratuen kopurua.	1.- Klausulak egoki sartzeko prestakuntza-ekintzak. 2.- Kontratazioen baldintza-agirietan klausulak sartzeko estekak bildu, ordenatu eta zabaltzea.	Batzorde teknikoa sendotzea KGAlan klausulak ezartzean sortzen diren zalantzak argitzeko eta orientabideak emateko erreferentziako organo gisa. Zerbitzu eta sailekin biltzea, teknikariei laguntza zehatza emateko KGAlan klausulak ezartzeari begira. OHE sistema informatikotik datu estatistikoak ustiatzeko ezarritako prozedura sendotzea.	3.000 € (Prestakuntza-ekintzak)
Gauzatzeko baldintza bereziak aplikatu daitezten sustatzea lehentasunezko kolektiboetako pertsonak kontratatu ditzaten.	Kolektibo horietako pertsonen kontratazioa % 2 handitzea kontratazio erreserbatuaren bitartez. Gizarteratze enpresen edo enplegu-zentro berezien bidezko azpikontratazioa handitzea, gauzatzeko baldintza bereziak (kolektiboak) betetzearren.	Baldintza-agirietan lehentasunezko kolektiboak sartzea barne hartzen duten kontratu erreserbatuen kopurua. Gizarteratze enpresekin edo enplegu-zentro bereziekin klausulak betetzea azpikontratatzeko duten kontratuen kopurua.	3.- Aholkularitza pertsonalizatua, horretarako enpresa edo entitate bat kontratatuz, 2017an kontratazioak abiarazten dituzten sail zehaztuz: Laneratzearrekin, berdintasunarekin, bidezko merkataritzarekin eta ingurumenarekin lotutako klausula sozialak sartzeko. Kontratazio erreserbatuak sartzeko. Balioespen-irizpideak sartzeko. 4. Gizarteratze-enpresen eta enplegu-zentro berezien zerrendak eguneratzea, kontratazio erreserbatuetan erabiltzeko xedez.		3.000 € (Udal sailentzako aholkularitza pertsonalizatua)

LEHENTASUNAK	HELMUGAK / HELBURUAK	ADIERAZLEAK	2017KO EKINTZAK	JARRAIBIDEAK / PROZEDURAK / PRESTAKUNTZA	BALIABIDE EKONOMIKOAK
Genero-berdintasuna					
Datuak biltzeko iturria hobetzea, estatistika balagarri eta fidagarriak lortzeko.	Estatistikak egokitzea, parametro guztietan sexuen araberako datu bereziak jaso ahal izateko.	KGAlari buruzko datuak jasotzeko tresna egokitzea, eragina sexuen arabera neurtu ahal izateko.	5.- KGAlari buruzko estatistikak ateratzeko baliatzen den aplikazioa hobetzea, sexuen araberako datu bereziak jaso ahal izateko.	Web-orriaren mantentze eguneratua, udal langileen eskura hauek jarritz: Genero klausulak barne hartzen dituzten kontratu publikoen ereduak.	0 €
Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten klausulak sartzea.	40 langile prestatu eta sensibilizatu, udal kontratuak diseinatu eta gauzatzekoan genero-ikuspegia nola sartu jakin dezaten.	Berdintasun klausulak sartzeari buruzko prestakuntza jaso duten teknikarien kopurua.	6.- 20 pertsonako bi talde prestatu eta sensibilizatzea, udal kontratuak diseinatu eta gauzatzekoan genero-ikuspegia nola txertatu jakin dezaten.	Kontratu publikoetan berdintasun klausulak egiaztatu eta jarraitzeko sistemak.. Emakundek emakume eta gizonen arteko berdintasunerako klausulei buruz dituen baliabide ugariak.	3.600 €
	Berdintasun klausulak barne hartzen dituzten baldintza-agirien kopurua bikoiztea.	Berdintasun klausulak barne hartzen dituzten kontratuen kopurua	7.- Berdintasun klausulak idaztea eta baldintza-agirietan oro har sartzea.		0 €

LEHENTASUNAK	HELMUGAK / HELBURUAK	ADIERAZLEAK	EKINTZAK	JARRAIBIDEAK / PROZEDURAK / PRESTAKUNTZA	BALIABIDE EKONOMIKOAK
Bidezko merkataritza					
Udalaren zerbitzu eta hornikuntza kontratuen baldintza-agirietan bidezko merkataritzako produktuak erabiltzea sustatzen duten klausulak sartzea.	Gizarte etxeetako eta udal instalazioetako kafetegietan bidezko merkataritzako askotariko produktuak eskaintzea.	Bidezko merkataritzako kafea, txokolata, tea eta azukrea eskaintzen duten kafetegia-zerbitzuetarako lizitatutako kontratuen kopurua. Bidezko merkataritzako produktuak dituzten udal kafetegien kopurua.	8.- Bidezko merkataritzako klausulak barne har ditzaketen kontratuak identifikatzea eta kontratuen katalogoak egitea. 9.- Bidezko merkataritzako klausulak dituzten kontratazio-agiriak lantzea, lehiaketak egitea eta kontratuak formalizatzea. 10.- Erosketa eta kontratazioez arduratzen diren udal langileak bidezko merkataritzaz sensibilizatzea (hitzaldiak, informazio saioak, bilerak).	Batzorde teknikoarekiko kontaktua kontratazio-agiriak lantzeko prozesuan. Funtzio Publikoarekiko eta sailetako zuzendaritzarekiko koordinazioa sentsibilizazio saioetara joateko. Udal langileek erabil ditzaketen estekak: Bidezko merkataritzako estatuko koordinakundea, alorrean aitortutako erakundeak biltzen dituena. Bidezko merkataritzako hornitzaileen zerrenda. Bidezko merkataritzako produktuen katalogoa. Bidezko merkataritzako berme-zigiluak. Gasteizko ekonomia solidario eta iraunkorreko saltokien sarearen direktorioa.	
	Bidezko merkataritzako produktuen erositako urtean % 2 handitzea.	Bidezko merkataritzako produktuen erositako multzoak dituzten erositako multzoak dituzten udal zerbitzuen kopurua.	Bidezko merkataritzako produktuen berariazko multzoak dituzten elikadura-zerbitzuetarako lizitatutako kontratuen kopurua. Elikadura-zerbitzuetan bidezko merkataritzako produktuak dituzten udal zerbitzuen kopurua.	11.- Bidezko merkataritzako produktuen hornitzaile akreditatuak eta produktuen katalogoa sailkatu, eguneratu eta erakunde barruan zabaltzea. 12.- GGKEen partzuergoarekin bidezko merkataritzari buruz sinatutako hitzarmenaren barruko ekintzak: erosketa publiko arduratsuari buruzko jardunaldiak. 13.- Gaitutako catering enpresekiko kontaktua.	
Bidezko merkataritzako alternatiba duten produktuak sartzea sail eta zerbitzuen erosketetan.	Udalaren ekitaldietan zein biltzar edo turismo ekitaldietan eskaintzen diren catering zerbitzuetan bidezko merkataritzako eskaintza handitzea.	Udalaren catering zerbitzuetan erositako bidezko merkataritzako produktuen bolumen ekonomikoa. Biltzar edo turismo ekitaldietako catering zerbitzuetan bidezko merkataritzako produktuak sartzen dituzten enpresen kopurua.			

LEHENTASUNAK	HELMUGAK / HELBURUAK	ADIERAZLEAK	2017KO EKINTZAK	JARRAIBIDEAK / PROZEDURAK / PRESTAKUNTZA	BALIABIDE EKONOMIKOAK
Ingurumena 2020					
<p>Udal lehiaketetan ingurumenaren aldagaiaren txertaketa sistematizatzea.</p> <p>Ingurumen ikuspegia nabarmen handitzea, ingurumen eta iraunkortasun klausulak sartuz.</p> <p>Udalaren plan, estrategia eta programetan (klima aldaketa, mugikortasuna, hondakinen kudeaketa, etab.) erosketa eta kontratazio publikoarekin lotuta aurreikusitako ingurumen helburuak lortzen laguntzea.</p> <p>Udal administrazioko langileak ingurumenaren alorrean prestatu, gaitu eta sentibilizatzea.</p> <p>Esperientzia pilotuak egitea zenbait alorretan, erosketa eko-berritzailea, esaterako.</p>	<p>Kontratuen % 50-60an ingurumen eta iraunkortasun klausulak sartzea, bolumen ekonomikoaren zein lehiaketa eta kontratuen arabera neurtuta, gutxienez produktu eta zerbitzuen 30 multzotan, garrantziaren arabera lehenetsiak.</p> <p>Udal kontratazioaren eta merkatuaren arteko koordinazioa optimizatzea.</p> <p>Enpresa txiki eta ertainen sarbidea erraztea.</p> <p>Gasteizko Udala erosketa eta kontratazio publiko berdean (EKPB) erreferentetzat aitortzea lortzea.</p>	<p>Lehenetsitako produktu eta zerbitzuen zerrenda eta urte bakoitzerako planifikazioa.</p> <p>Lehenetsitako produktu eta zerbitzuetako bakoitzean urtean lizitatutako kontratuen kopurua.</p> <p>Lehenetsitako produktu eta zerbitzu talde bakoitzean lizitatutako kontratuen urteko zenbatekoa.</p> <p>Lehenetsitako produktu eta zerbitzu talde bakoitzean ingurumen-irizpideak sartu diren lizitatutako kontratuen kopurua.</p> <p>Lehenetsitako produktu eta zerbitzu talde bakoitzean ingurumen-irizpideak sartu diren lizitatutako kontratuen urteko zenbatekoa.</p> <p>Urtean ingurumen klausulei buruzko prestakuntza jaso duten udal langileen kopurua.</p>	<p>16.- Ingurumen irizpideak % 20 handitzea alor hauetako produktu eta zerbitzuen lehiaketetan:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Papera 2.- Ordenagailuak eta monitoriak 3.- Inprimatze ekipook 4.- Eraikinen garbiketara 5.- Ibilgailuak 6.- Argitalpenak 7.- Elikadura eta cateringa 8.- Lorezaintza 9.- Bide garbiketara 10.- Obra zibila eta azpiegiturak <p>17.- Ingurumen irizpideak % 10 handitzea alor hauetako produktu eta zerbitzuen lehiaketetan:</p> <ol style="list-style-type: none"> 11.- Eraikuntza eta birgaintza 12.- Urbanizazioa 13.- Hondakinen bilketa 14.- Elektrizitate hornikuntza 15.- Garraio publikoa 16.- Mezularitza 17.- Bulegoko altzariak 18.- Ehunkiak 19.- Bidaien kudeaketa 20.- Ekitaldiak <p>18.-Udal sail, zerbitzu eta erakundeei aholkularitza ematea ingurumen klausulak sartzeari buruz.</p> <p>19.- Eusko Jaurlaritzaren EKPBko programari atxikitzea.</p> <p>20.- Erosketa eta kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko plana eta jarraibidea zabaltzeko jardunaldietan parte-hartzea.</p>	<p>Txostenak eguneratzea: Gasteizko Udalaren kontratazioa (2009ko iraila), kontratazio berdea (2010ko iraila) eta kontratazio-prozesuaren analisia (2010eko azaroa).</p> <p>Lehenetsitako taldeetan kontuan hartutako produktu eta zerbitzuen oraingo kontratazio-prozesuei buruzko azterlanak (2015 eta 2016).</p> <p>EKIPeko ekintzen gauzatze-mailari eta helburuak lortzeari buruzko urteko jarraipen-txostenak.</p>	0 €

LEHENTASUNAK	HELMUGAK / HELBURUAK	ADIERAZLEAK	2017KO EKINTZAK	JARRAIBIDEAK / PROZEDURAK / PRESTAKUNTZA	BALIABIDE EKONOMIKOAK
HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK					
<p>Kontratu guztiek EAeko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeke araudiak bete beharko dituzte, bai eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeari buruzko Udal Ordenantza ere, zeina 2013-2017rako Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeke Planaren barruko atala baita —2013ko abenduaren 20an onetsi zuen plana Tokiko Gobernu Batzarrek—.</p>					

4. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA / PRESTAKUNTZA

4.1.- Erakunde eta gizarte komunikazioa

Komunikazioa garatzeko tresna edo ekintza ohikoenetako batzuk proposatzen dira. Publizitate korporatibo egokia garatzea eta udalerriko herritarrei KGAI ezagutzeko eta baliatze-ko aukera ematea da helburua.

- Marketin politikoa.
- Web-orria, blogak (intranet barne).
- Sare sozialak (zabalkundea-koordinazioa Prentsa Zerbitzutik)
- Prentsa-oharrak/prentsaurrekoak.
- Ferietan zabaltzea eta parte hartzea.

4.2.- Merkatuari begira: gizarte-eragileak

Inplikaturako eragile guztien (enpresa normalizatuak, gizarte alorreko enpresak, gizarte-ratze-enpresak, enplegu zentro bereziak, irabazi-asmorik gabeko entitateak...) jarduera indartzeko ekintzak proposatzea litzateke helburua.

- Antolakundeko arlo ezberdinetako buruak eta profesionalak enprekin biltzea.
- Enpresa normalizatuak eta gizarte arloko enpresa edo entitateen arteko bilerak, lan-esparru komuna sortzeko eta KGAIaren esparruarekiko egon daitekeen mesfidantza gutxitzeko. Metodologia World kafea edo antzeko dinamikak erabiltzea izan daiteke, edo proaktiboago batzuk.
- Foroak / txatak (2018rako).

4.3.- Udal sailei begira: teknikariei komunikatzea

Klausulak implementatzeko KGAIari buruzko jarraibidearekin lotutako guztia bildu eta antolatzea (intranet) litzateke helburua, zabaltzeko.

- Komunikazio-kanal korporatiboa edo intranet.
- EKIParen zabalkundea.
- csrs@vitoria-gasteiz.org posta elektronikoaren erabilera sustatzea, zalantzak argitze-ko edo udal teknikariek batzorde teknikoari ekarpenak egin diezazkioten.

- Antolakundeko arlo ezberdinetako buru eta profesionalekiko bilerak: batzorde teknikoaren lanei buruzko informazioa eta EKIParen zabalkundea.
- Sailei gonbit puntualak egitea KGAlrako batzorde teknikoaren bileretan parte hartzea.

4.4.- Prestakuntza

- Sail bakoitzeko teknikariek izan ditzaketen prestakuntza beharrak eta eskaerak antzematea.
- Prestakuntza saio horiek Funtzio Publikoak planifikatutako prestakuntzaren antolakuntza orokorrean txertatzea.

4.5.- Aurrekontua

- Zabalkunde materialak (eskuorriak, triptikoak, karpetak, dosierrak...)
- World kafea
- ...
- 6.000 €

5. JARRAIPENA / EBALUAZIOA

I. DATUEN USTIAKETA

Jarraibideak berak 2.6 atalean (“Ebaluazioa eta jarraipena”) aurreikusten duen bezala: “Kontratazio-organoen ahalmenak aparte utzi gabe, batzorde tekniko bat jarraibidearen ezarpena bultzatzeaz arduratuko da, eta jarraibidearen betetzea ebaluatuko du aldizka”.

Horretarako, proposamenaren lehen atalean zehaztutako alderdiak jasotzen dituen taula bat osatu da:

- Klausula gizartearekiko arduratsu eta iraunkorrak dituzten kontratuak egin dituzten sailen kopurua.
- Klausula gizartearekiko arduratsu eta iraunkorrak dituzten kontratuen kopurua.
- Klausula gizartearekiko arduratsu eta iraunkorren tipologia: gizartearekin, ingurumenarekin edo bidezko merkataritzarekin lotutakoak.
- Erreserbatu beharreko kontratuek Udalaren kontratazio-kopuru globalean duten portzentaje ekonomikoa.

II. BALIOESPEN KUALITATIBO A

- Helburuak betetzea.
- Jarraibidearen onespina:
- Enpresen aldetik, alderdi hauek kontuan hartuz: betetzea, iradokitako zailtasunak, eskatutako salbuespenak...
- Udalaren aldetik, alderdi hauek kontuan hartuz: ezarritako klausulen tipologia, gehien inplikaturako sailak, eraginkortasuna, inplementatzeko topatutako zailtasunak, teknikarien ezagutza-maila, etab.
- Inplementatzeko zailtasunak:
- Jarraibideak berak sortutakoak: lortzen zailak diren helburuak, betebeharrak, ...
- Behar diren administrazio-prozedurak.
- Sailen artean koordinatzeko edo elkarri laguntza teknikoa emateko zailtasunak.
- Jarraibidea beste udal erakunde batzuetara zabaltzea eta inplikazioa: AMVISA, ...
- Eraitzen ebaluazioa. 1. puntuaren esandakoaren ildotik, saileko teknikarien balioespenarekin batera.
- ...

III. KGAI-RAKO BATZORDE TEKNIKOA

- Egindako bilerak.
- Jarraibidearen betetze-mailaren jarraipena (taulak).
- Landutako gaiak.
- Proposatutako hobekuntzak.

IV. ONDORIOAK

V. HOBETZEKO IRADOKIZUNAK

ERANSKINAK

1. ERANSKINA KGAI / KONTRATAZIO PUBLIKOAREN ALORREKO AURREKARIAK, LEGEDIA ETA POLITIKAK

Aurrekariak eta arau-esparrua

Kontratazio publikoan kontsiderazio sozialak eta ingurumen-arlokoak kontuan hartzeko eta kontsiderazio horiek kontratua betetzeko baldintza berezi gisa edo eskaintzak baliosteko irizpide gisa konfiguratzeko aukera ematen duten mekanismoen aurreikuspena sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak txertatu zuen ordenamendu juridikoan. Izan ere, lege horrek 2004/18/EE Zuzentarauaren transposizioa egin zuen, eta berrikuntza esanguratsuak ekarri zituen zuzentarauari lotutako negozioen prestaketari eta esleipenari dagokionez. Ildo horretatik, kontratuak eskakizun etiko eta sozial berrietara egokitzeko jarraibideak biltzea ahalbidetuko zuen egitura bat aurreikusi zuen. Besteak beste, prestazioak garapen-bidean dauden herrialdeekiko bidezko merkataritzaren eskakizunetara egokitzea aipatzen zen, Europako Parlamentuak uztailearen 6an emandako Bidezko Merkataritza eta Garapenari buruzko Ebazpenean (2005/2245 (INI) aurreikusi bezala. Ebazpen horrek beren ohiko erosketetan bidezko merkataritza txertatzeko eskatzen die esanbidez agintari publikoei, produktu horiek sustatzeko eta, era horretan, ondasun eta zerbitzuen eskari publikoa baliabide naturalen benetako erabilgarritasunera egokitzeko.

Erregulazio hori bera ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan.

Gasteizko Udaleko Udaltzako bidezko merkataritzaren aldeko erakunde-adierazpena onetsi zuen 2008ko ekainaren 23an, zeinak "erosketa-politikan bidezko merkataritzako produktuak txertatzeko" konpromisoa barne hartzen baitzuen; urte bereko azaroaren 21an, berriz, Udalak sustatzen dituen kontratuak aztertzea onartu zuen mozio baten bidez, baldintzen agirietan klausula sozialak txertatu daitezela, betiere betetzeko modukoak badira.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2010eko ekainaren 18ko erabakiz, gure Udalaren kontratazioan klausula sozialak txertatzeko aukera arautzen duen Jarraibidea onartu zen.

Udal-jarraibide horrek bere egiten ditu, eta zehaztu, legean aurreikusitako mekanismoak, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak bezala, kontratazio administratiboa gizarte-bazterkeriari aurre egiten dioten politika publikoen eta, berezi-

ki, merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak lan-merkatuan txertatzeko aukera erraztea bilatzen duten politika publikoen zerbitzura jardungo duen tresna izan daitekeen ideian oinarritzen du esparru horretan lan egiteko edo esku hartzeko proposamena.

2013ko urriaren 18ko ohiko bilkuran, Udalbatzak erabaki zuen lantalde bat sortzea, udal teknikariek klausula sozialen eta ingurumen-klausulen arloan egindako lanak azter zitzaizkion, Gasteizko Udalaren taldearen kontratazio-prozesuetan aplikatzeari begira. Horren ondorioz Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea onetsi zuen 2015eko urriaren 16an, eta Udalbatzak horri buruzko erakunde adierazpena egin zuen 2015eko azaroaren 6an.

Arau-esparrua:

COM/2008/0397 final Comunicación de la Comisión al Parlamento europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social europeo y al Comité de las Regiones relativa al Plan de Acción sobre Consumo y Producción Sostenibles y una Política Industrial Sostenible.

COM/2008/400 final Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. Public procurement for a better environment. (Versión en castellano no disponible).

Orden PRE/116/2008, de 21 de enero, por la que se publica el Acuerdo de Consejo de Ministros por el que se aprueba el Plan de Contratación Pública Verde de la Administración General del Estado y sus Organismos Públicos, y las Entidades Gestoras de la Seguridad Social. Resolución Parlamento Europeo sobre CJ y desarrollo 2005/2245 (INI)

Resolución Parlamento Europeo sobre CJ y desarrollo 2005/2245 (INI)

Directiva 2014/24/UE, del Parlamento Europeo y del Consejo de 26 de febrero de 2014, sobre contratación pública y por la que se deroga la Directiva 2004/18/CE)

Directiva 2014/25/UE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, relativa a la contratación por entidades que operan en los sectores del agua, la energía, los transportes y los servicios postales y por la que se deroga la Directiva 2004/17/CE)

Directiva 2014/23/UE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, relativa a la adjudicación de contratos de concesión

Directiva 2014/55/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de abril de 2014, relativa a la facturación electrónica en la contratación pública. Arau-esparru horretan, besteak beste, fakturazio elektronikoren elkarreragingarritasun semantikoa erraztea eta segurtasun juridikoa hobetzea hartu da kontuan. Horrek kontratazio publikoan faktura elektronikorekin erabilera sustatzen lagunduko du, eta hartara, estatu kideek, esleitzeko agintea dutenek, esleitzen duten entitateek eta operadore ekonomikoek onura handiak sortu ahalko dituzte aurrezpenari, ingurumen eraginari eta administrazio-kargen murrizteari dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, apirilaren 7ko 3/2016 Legea, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.

Erosketa eta kontratazio publiko berdeari (EKPB) dagokionez, EBren lege-multzo berriak ezaugarri hauek ditu:

- Kontratazio-sistema publikoa modernizatzea, eraginkortasun handiagoa eta prozedurak sinplifikatzea; gainera, lehenengo aldiz, kontratu publikoak prestatu eta esleitzeko faseak zein gauzatu eta ebazteko faseak arautu dira Europa mailan.
- Globalizazio ekonomikoaren eta lehiakortasunaren testuinguru batean, hazkunde handiagoa ahalbidetzen duten politikak diseinatzea eta, aldi berean, ingurumen, gizarte eta lan zuzenbidean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzeko bermeak indartzea; orobat, erosleek kontratazio publikoa hobeto erabiltzea ahalbidetzen da, hainbat helburu lortzen laguntzeko: ingurumenaren babesa, baliabideen eta energiaren erabilera eraginkorragoa, klima aldaketaren kontrako borroka, eta berrikuntzaren eta gizarte inklusioaren sustapena.
- Enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte har dezaten sustatu eta erraztea.

2. ERANSKINA UDALAREN ERREFERENTZIAZKO PLAN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Esparrua	Plan eta proiektu estrategikoak
Orokorra	Gasteiz gobernatzeko 2015-2019 plan estrategikoa
Lurraldea	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
Iraunkortasuna	21 Tokiko Agendaren 2010-2014 Ekintza Plana
Mugikortasuna	Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana
Mugikortasuna	Ziklisten Mugikortasunaren Gida Plana (2010-2015)

Esparrua	Plan eta proiektu estrategikoak
Ingurumena (2010-2020)	Klima Aldaketaren kontra Borrokatzeko Plana (2010-2020)
Ingurumena	Udal-hondakinen kudeaketarako plan integrala (2008-2016)
Ingurumena	Gasteiz: karbonoari dagokionez hiri neutroa (2020-2050)
Ingurumena	Futura plana. Uraren kudeaketa eraginkorra
Ingurumena	Airearen Kalitatea Kudeatzeko Plana
Ingurumena Bizi-kalitatea	Gasteiz, hiri osasungarria. Gasteizko Osasun Garapenerako Plana
Ingurumena	Gasteizko udalerriko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategia
Ingurumena	Hiri Azpiegitura Berdearen Plana.
Ingurumena	Eratzun berdea

Esparrua	Plan eta proiektu estrategikoak
Bizi-kalitatea	Haur eta Nerabeentzako Tokiko Plana (PLINA2)
Bizi-kalitatea	Gasteizko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana
Bizi-kalitatea	Gasteizko Gazte Plana
Bizi-kalitatea	Hezkuntza Plan Estrategikoa. Gasteiz, hiri hezitzailea
Bizi-kalitatea	Kultura Plan Estrategikoa (2016-2021) (lantzen ari da)
Bizi-kalitatea	Gizarte-etxeen sarea
Bizi-kalitatea	Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa (2016-2019) (lantzen ari da)
Bizi-kalitatea	Garapenerako Lankidetzaren Gida-plana (2016-2019) (5.3 puntua bidezko merkataritzari buruzkoa da)
Bizi-kalitatea	Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plana (2013-2017)

Esparrua	Plan eta proiektu estrategikoak
Ekonomia	Ekintzaileentzako eta enpresak sortzeko laguntzak
Ekonomia	Prestakuntza eta Enplegu Sustapena
Ekonomia	Gasteizko Turismo Plan Estrategikoa (2015-2017)
Ekonomia	Merkataritza Plan Estrategikoa

3. ERANSKINA / OHE- KONTRATU KUDEATZAILEAREN ERREGISTROA

Eremuak		Estatistikak						
	Esleitutako / formalizatutako kontratuak	Urtea	Dosier kop.:	Kontratu kop.:	Zenbatekoa, guztira	Kontratatutako lanen kop.	Kolektiboak % 60-% 40 / Immigrazioa / Lagundutako pertsonak	Oharrak
Kontratuaren xedea								
Balio soziala								
Bidezko merkataritza								
Ingurumen balioa								
Preskripzio teknikoak								
Gizarte arlokoak								
Bidezko merkataritza								
Ingurumenaren arlokoak								
Kaudimen teknika								
Soziala								
Ingurumenekoa								
Hizkuntzakoa								
Kontratu erreserbatua								
EZB								
Gizarteratze enpresak								
Irabazi asmorik gabeko entitateak								
Esleitzeko irizpideak								
Gizarte arlokoak								
Berdintasuna								
Bidezko merkataritza								
Ingurumenaren arlokoak								
Lehentasun-irizpideak								
Pertsonak								
Bidezko merkataritza								
Kontratu gauzatzeko baldintza bereziak								
Sozialak: kolektiboak								
Lanekoak Berdintasuna								
Bidezko merkataritza								
Ingurumenaren arlokoak								
Salbuespenak								
Zigorrak								

4. ERANSKINA / UDAL KONTRATUEN KATALOGOA

KONTRATZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA								
KONTZEP-TUA	KONTRA-TU MOTA	KAUDI-MENA	ESLEITZE-KO IRIZPI-DEAK	PRES-KRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA	LEHENTASUN-IRIZPIDEAK	KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK	EUSKARA	BIDEZKO MERKATA-RITZA